

PROIEKTURAREN DESKRIBAPENA

Kaixo! Gu UNI_MG aplikazioa gara. Gure produktua Unibertsitatera doazen gazteentzat zuzendua dago batez ere, kurtso hasiera on bat emateko eta baita kurtsoaren zehar ongi joateko.

Lehenik eta behin, batxilergoko ikasleak unibertsitatera pasa aurretik, beraien gustuko karreraren inguruan informatzeko aukera izango dute.

Unibertsitateari hasiera ona emateko, urrun duten ikasleentzat etxebizitza bat bertatik bertara izatea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Horregatik, etxebizitzak, apartamentuak... urtean zehar alokatzeko aukera eskaintzen dugu.

Bestalde, liburu eta apunteen salketa egiteko aukera dugu. Adibide moduan, aurreko urteko ikasle batek bere aurreko kurtsoko liburu edota apunteak saltzeko aukera izango luke. Eta hasi berri den ikasle batek erosteko aukera izango luke. Horrela, bi ikasleak irabazten ateratzen dira, batek diru extra bat irabazten duelako eta besteak berriz, liburu edo apunteak lortzeko erraztasuna.